

Donostia, 2017ko azaroaren 3a

### IDAZKARITZA NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA, HAU DELA ETA: INTERES OROKORREKOAK DIREN EDO AUZOTAR GUZTIEI EDO GEHIENEI ERAGITEN DIETEN HORNIDURA ZERBITZUETAKO ENPRESA USTIATZAILEEK UDAL BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURPE EDO HEGALEN ERABILERA PRIBATIBO ETA APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINTZEN DUTEN TASA.

Amaia Martin Garin andreak, Irabazi Donostia taldearen bozeramaileak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri hartuta, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, UDALBATZAN AZTER DADIN, hau dela eta: interes orokorrekoak diren edo auzotar guztiei edo gehienei eragiten dieten hornidura zerbitzuetako enpresa ustiatzaileek udal bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalean erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatik ordaintzen duten tasa.

### JUSTIFIKAZIOA

2018rako ordenantza fiskalak izapidetzeko prozesuan, gure taldeak proposamen bat aurkeztu zuen, tasa hau aldatzeko: interes orokorrekoak diren edo auzotar guztiei edo gehienei eragiten dieten hornidura zerbitzuetako enpresa ustiatzaileek udal bide publikoetako lurzoru, lurpe edo hegalean erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatik ordaintzen duten tasa.

Ordenantza fiskalei buruzko eztabaidan, txosten teknikoetan adierazi zen eta Ogasuneko zinegotzi ordezkariak ere argudiatu zuen tasa hori igotzeko lege hau aldatu behar dela: 25/1998 Legea, uztailaren 13koa, Estatuaren eta Toki Erakundeen Tasen Lege Araubidea aldatu eta Ondare Prestazio Publikoak berrantolatzea. Lege horretan, % 1,5ean finkatuta dago aipatutako tasa. Ia 20 urte igaro dira lege hori ezarri zenetik, eta ez du inongo aldaketarik izan. Urte horietan, KPIa % 51,8 igo da, eta energiaren horniduraren kostua (argiaren eta gasaren kostua) esponentzialki hazi da; aipatutako tasa ordaintzen duten enpresen etekinak ere etenik gabe igo dira, ordea, bai eta krisi garaiko urterik gogorrenetan ere.

Gure ustez, 20 urtean nahikoa denbora egon da lege hori berrikusteko eta egungo egoerara moldatzeko. Ez da oso zentzuzkoa beste tasa batzuk urtero igotzea, zergapekoen egoera kontuan izan gabe, eta guk aipatutako tasa 20 urtean ez aldatzea.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

#### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gorte Nagusiei eskatzen die estatuaren jabari publikoko ondasunen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaintzen den tasa igotzeko lege aldaketa bat aurkez dezala, Estatuaren eta Toki Erakundeen Tasen Lege Araubidea aldatu eta Ondare Prestazio Publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak ezartzen duen tasa igotzeko lege aldaketa bat, tasa hori egungo egoerara moldatzeko.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.